

## **BALIO PROPOSAMENA**

Denoi gertatu zaigu, erosketak egin behar izatea eta zer erosi ez jakitea. Zure seme-alabentzako janari osasungarri eta nutritiboa hartu nahi izatea, eta onena zer den ez jakitea. Gainera, gehiegi erosteagatik janari guztia zaborretara botazten da, eta diru eta janari mordoa xahutzen da. Ez dakizu nola konpondu arazo hau? Bada, irtenbiderik onena dakarkizugu: eguneroko bizitza errazagoa, seguruagoa eta jasangarriagoa egingo dizu horrek. Ezingo zara bizi hori gabe, hau da: **Etxeko aliatu berria: zure hozkailuan jartzen den pantaila adimenduna!** Aplikazio mugikorrarekin konektatzen da eta zure egunerokoa errazteko sortua da.

- **Segurtasuna:** Zure hozkailuan zer duzun jakiteko, gure tableta eta aplikazio hau perfektuak eta bakarrak dira. Hauek lagunduko dizute jakiten zein diren elikagaien egoera nahi dezun momentuan, dena kontrolpean edukiko duzu beti, iraungitze-datak eta abisu adimendunak eskura izango dituzu. Gure pantaila adimendunarekin eta aplikazioarekin hori guztia automatizatuta izango duzu. Ez duzu kezkatu beharko janaria hondatuta ote dagoen edo produktu garrantzitsu bat falta zaizun. Horrela, elikagaiak egoera ezin hobean mantentzen dira eta familiaren osasuna bermatuta dago.
- **Jasangarritasuna:** Gure tablet-a eta aplikazioarekin, munduari lagundua ahalko diozu, ahalegin gabe. Janari-xahuketa murriztu eta kontsumoa hobetu, informazio argi eta erabilgarriarekin. Aplikazioak zure hozkailuan dagoenari buruzko informazio garbia eta erabilgarria ematen dizu: zein produkturi lehentasuna eman, zenbat elikagai soberan dituzun edo zer erabiltzeko dauden iraungitzear. Horrela, **janari-xahuketa nabarmen murrizten da**, eta zure erosketak arduratsuagoak bihurtzen dira. Ez duzu gehiago erosiko alferrik, eta horrek **dirua aurrezte**a ere ekarriko dizu. Gainera, kontsumo adimentsuago bat eginez, **ingurumenarekiko eragina gutxitzen** duzu, O<sub>2</sub> isuriak eta hondakin organikoak txikiagotuz. Mundua laguntzea ez da inoiz horren erraza izan!
- **Osasuna:** Zure ongizatea zaintzea inoiz baino errazagoa izango da gure pantaila adimendunari eta aplikazioari esker. Menu gomendio pertsonalizatuak eta zure beharren arabeko oharrak, zure ongizatea etxeko lehen lerroan jarriz. Gainera, hozkailuan dituzun produktuen arabera, aste osorako **errezeta osasungarriak** iradokiko dizkizu, erosketak antolatzen eta eguneroko otorduak planifikatzen laguntzeko. Zure elikadura-ohiturei buruzko **ohar eta jarraipen adimendunak** jasoko dituzu, nutrizio-balioak argi eta erraz ulertuta. Horrela, zuk eta zure familia osoak badakizue beti zer jaten duzuen, eta zein aukera diren egokienak energia gehiago izateko, hobeto sentitzeko eta bizitza osasuntsuago bat eramateko. Zure gorputza zaintzea ez da sekula horren erraza izan.

- **Erraztasuna:** Eskaintzen dizkizugun hiru ezaugarri hauekin zure egunerokoa askoz arinagoa izango da. Egunero pisu bat gutxiago sentituko duzu, eta ez duzu zertan kezkarik hartu behar etxeko antolaketa eta erosketen kontrola zure gain hartzeagatik. Zure aliatu berriak lan neketsuenak bere gain hartuko ditu: jakinarazpen adimendunak bidaliko dizkizu, erosketen zerrendak automatikoki sortuko ditu, eta hozkailuko edukia beti eguneratuta izango duzu, klik bakar batekin. Horrela, denbora gehiago izango duzu benetan axola duten gauzetarako, eta etxeko kudeaketa askoz sinpleagoa eta atseginagoa bilakatuko da. Zuk atsedean hartu besterik ez duzu egin behar; gainerakoa, gure pantaila adimendunak egingo du.

Azken finean, hozkailuan instalatutako pantaila adimendunak etxeko egunerokoa errazteko aukera paregabea eskaintzen dizugu. Segurutasuna handitzen du elikagaien egoera eta iraungitze-datak kontrolpean edukita; jasangarritasuna bultzatzen du janari-xahuketa eta kontsumo desegokia murriztuz; eta osasuna hobetzen du gomendio pertsonalizatuen bidez. Horrez gain, denboraren kudeaketa erraztu eta eguneroko antolaketa arinago bihurtzen du. Teknologia honek etxeko kudeaketa modu adimentsuago, arduratsuago eta erosoago batean bizitzeko aukera ematen du, etxe modernorako aliatu ezin hobea bilakatuz.

## *Bizihotz, elikadura osasuntsua, klik batean*

